

GAINTZAKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN-AZTERLAN ESTRATEGIKOAREN IRISMEN-DOKUMENTUA.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan eta II A) eranskinean xedatutakoaren arabera, hiri antolamenduko plan orokorrek (HAPO) ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar dute nahitaez.

Ildo horretan, Gaintzako Udalak HAPOa izapidetzeko prozesua hasi du, eta, beraz, ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 18. artikulua aplikatuz, plan horren ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura hasteko eskatu zion Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiari 2024ko ekainaren 6an.

Horri dagokionez, Ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera, planak eta programak prestatzean ingurumen-alderdiak integratzeko, ingurumen-organoak irismeneko dokumentu bat egin behar du ingurumen-azterketa estrategikoak izan behar duen hedadura, xehetasun-maila eta espezifikazio-maila xedatzeko, eraginpeko administrazioei eta publiko interesdunari kontsulta egin ondoren.

Beraz, 10/2021 Legearen 62. artikulua aplikatuz, eta ekainaren 30eko 4/2023 Foru Dekretuan eta haren ondorengo aldaketan –uztailaren 14ko 6/2023 Foru Dekretua– ezarritakoarekin bat etorriz, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak Gaintzako HAPOaren irismen-dokumentu hau egin du.

1. - GAIKAZAKO HAPOAREN AURRERAPENEAN PROPOSATUTAKO ALTERNATIBAK ETA ANTOLAMENDU-EREDUA.

Gaintzako Udalak ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura hasteko bidalitako dokumentazioan honako hauek daude: HAPOaren aurrerapenaren memoria, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 18. artikuluan ezarritako hasierako dokumentu estrategikoa, eta dokumentu horietako bakoitzari dagozkion planoak. Era berean, ingurumen-ebaluazio estrategikoa eskatzeko inprimakia ere jasotzen du (urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskina).

HAPOaren aurrerapenaren memoriak, aplikatu beharreko araudiaren zerrenda egiteaz gain, hainbat helburu ezartzen ditu, bai orokorrek, bai ingurumenarekin zerikusia dutenak, bai herritarren parte-hartzetik eratorritakoak: lurralde-antolamenduaren ereduaren oinarritzko irizpideak definitzen ditu; lurzoru urbanizaezinerako, hiri-lurzorurako eta lurzoru urbanizagarrirako antolamendu-aukera batzuk deskribatzen eta aztertzen ditu; eta planaren hizkuntza-eraginaren ebaluazioak izango duen irismen-dokumentua aurkezten du.

Gaintzako HAPOaren aurrerapenak planteatzen duen antolamendu-ereduaren oinarritzko irizpideak honako hauek dira, laburbilduta:

A. Egoitza-erabilera

- Datorren hamarkadan udalerriko gazteen beharrei erantzungo dien bizitegi-garapeneko eskaintza bat proposatzea.
- Ahal den neurrian, sustatzea etxebizitza babestuen sustapen publikorako aukerak, edo espekulazio-dinamikak saihesten dituztenak eta tokiko biztanleei sarbidea bermatzen dietenak.
- Bizitegi-tipologiak bat etorri beharko luke autosufizientzia energetikoaren aldeko ingurumen-helburu eta -irizpideekin, eremu guztietan.
- Lehendik dagoen hiri-bilbea sendotzea, espazio publikoak sortuz edo indartuz, morfologia desitxuratzen ez duten egiturak eta tipologiak bereganatuz.



B. Jarduera ekonomikoak

- Ez da aurreikusten jarduera ekonomikoak garatzeko lurzoru kalifikatua ezartzeko beharra eta, hala badagokio, udalerriko gizarte- eta ingurumen-balioak errespetatuz egin beharko litzateke.

C. Ekipamenduak eta espazio libreak

- Gaintzako hirigunean hiri-egitura orekatua lortzea, espazio libreen eta ekipamendu publikoen arteko harreman egokiarekin. Horretarako, honako hau planteatzen da:
 - Etorkizunerako ekipamenduen erreserba nahikoa (udaletxe zaharra eta Apaiz Etxea).
 - Hilerriaren mendebaldean begiratoki baterako espazio publiko berri bat sortzea.
 - Gaintzako hiriguneko garapen-eremu berrietan kalitatezko espazio publikoak diseinatzea.
 - Dauden maldak direla eta, komunikazioa eta barne-konexioa hobetzea hirigunean, irisgarritasuna bermatzeko.
 - Erdiguneko bi sarreretan aparkalekuak egitea, plazan autoen presentzia murrizteko.

D. Mugikortasun jasangarria

- Udalerriko errepideak eta landa-bideak behar bezala mantentzen direla ziurtatzea.
- Garraio publikoko zerbitzuei buruzko informazioa herritarren esku jartzea eta eskaintza hobetzeko moduak aztertzea.

E. Azpiegitura-sareak

- Dauden zerbitzu-sareak hobetzea, bereziki konexio telematikoak, seinale-errepikagailuak eta lan-espazio partekatu egokiak, lan-baldintza onak ahalbidetzeko.

F. Lurzoru urbanizaezina

- Besteak beste, jarduketa hauek hartuko dira kontuan:
 - Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileretarako eremu estrategikoak identifikatzea.
 - Ingurumena kaltetzen duten monolaborantza-espezieak dituzten espazioak lehengoratzeko moduak garatzea, hobetzeko edo balio estrategiko handiko lurzoruen balorizazio-kategorien bidez.
 - Lurzoru urbanizaezinaren araubidea malgutzea eta egokitzea, erabilera mistoak eta basogintza- eta abeltzaintza-erabilerak sortzeko.
 - Baserriak zatitzea, haien bizimodua, kontserbazioa eta etorkizuneko erabilerak errazteko.

Irizpide horien arabera, honako alderdi hauetarako alternatibak proposatzen dira:

1. Lurzoru urbanizaezina.

Bi aukera proposatzen dira. 0. aukerak egungo arau subsidiarioetan ezarritako lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari eusten dio, bi kategoria orokorrekin: 1. Lurzoru urbanizaezin babestua (gailurrak, paisaia eta nekazaritza-lurrak, azaleko uren babesa eta sistema orokorrak) eta 2. bestelako lurzoru urbanizaezinak. 1. aukerak, LAGetan eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan ezarritakotik abiatuta, antolamendu-kategoria hauek hartzen ditu barnean:

- Babes berezia: faunari, florari eta oreka ekologikoari dagokionez, non baso naturalak eta erdinaturalak (hariztiak, pagadiak eta haltzadiak) eta interes komunitariogatik lehentasuna duten habitatak sartzen diren.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako eremua, bi azpikategoriarekin:



- Balio estrategiko handikoa: laborantzarako estrategikotzat jotzen diren lurrak mantentzea eta kudeatzea lehentasunezkoak dira beste erabilera batzuen aldean.
- Trantsizioko landa-paisaia: nekazaritza eta abeltzaintza bideratutako malda ertaineko lurretan. Lurzati horiek zuhaitz-masa txikiak dituzten belardiek osatzen dituzte, eta horiek, oro har, balio estrategiko handiko eremuekin edo baso-eremuekin kontaktuan daude.
- Baso-eremua: oro har, basoz osatutako lursailak dira, eta baso-balioa sustatu nahi da haietan.
- Ibai-ibilguak eta haien ertzak babesteko eremua: lurzoru urbanizaezinean daude, eta ibaiertzen erregulazioa Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzekeo Lurralde Plan Sektorialean xedatutakoaren arabera egiten da. Kategoria honetan sartzen dira, halaber, Ibiur urtegia eta haren babes-eremua.
- Sistema orokorra: zuzkidura-erabilerara bideratutako lursailak dira (biztanleriari zerbitzua emateko espazio libreak, ekipamendu kolektibo publikoak, ekipamendu kolektibo pribatuak eta komunikazio-azpiegituren sistema orokorra).

Gainera, baldintza gainjarri hauek ezartzen dira: baliabide natural estrategikoak (korridore ekologikoak, paisaia eta kultura-ondarea babesteko eremuak), higadura-arriskua duten eremuak (% 50etik gorako maldak eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera higa daitezkeen eremuak), kutsatuta egon daitezkeen lurzorua eta eremu akustikoak (HAPOa egiteko hurrengo faseetan zehaztuko dira, hautatutako aukeren arabera).

Era berean, hasierako fase honetan azpiegitura berdea osa dezaketen elementu batzuk identifikatu dira: udal-mailako elementuak (lotura-korridoreak, espazio libreen sistema orokorra, udalerriko azaleko ibilguak eta oztopo nagusiak), EAEko Korridore Ekologikoen Sareko elementuak (lotura-interes bereziko ibai-tarteak, lotura-korridoreak, moteltze-eremuak), Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sareko proposameneko elementuak (funtzionaltasun ekologikorako intereseko eremuak) eta Goierriko Lurralde Plan Partzialeko elementuak (nekazaritza- eta ingurumen-intereseko eremuak edota hobetu eta kontserbatu beharreko eremuak).

2. Hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarria. Sei aukera planteatzen dira, zehaztapen hauekin:

- 0. aukera: Aukera honek ez du bizitegi-garapenerako eremu berririk aurreikusten. Hirigunean, espazio libreen sistema orokorra eta ekipamenduen sistema orokorra definitzen dira. Horrela, udal berriarekin eta elizarekin batera, udaletxe zaharra, hilerria eta Apaiz Etxea ekipatzea proposatzen da. Berdeguneak eta ekipamendu horien ondoan dagoen plaza proposatzen dira espazio libre gisa.
- 1. aukera: Aukera honek bide berri bat irekitzea planteatzen du, iparraldeko sarreratik herriguneraino. Bidearen ondoan eta sarreran aparkaleku bat egokituko da, plazaren egungo aparkalekuak hartzen duen espazioa libratuko lukeena, eta horrek hiriguneko trafikoa murriztuko luke eta oinezkoentzako espazio seguruagoa ahalbidetuko luke. Kale Txiki taberna inguratzen duen zelaian bi eraikin proposatzen dira (S+B+I+BC eraikuntza-profila), bakoitza 4 etxebizitzarekin, eta gertuko Etxeazpiko lurzatian bi bizitzako bi eraikin. Bestalde, hirigunearen hego-ekialdeko sarreratik gertu, bi etxebizitzako eraikin bat proposatzen da (S+B+I+BC eraikuntza-profila), eta, aldi berean, gaur egun urbanizaezin gisa sailkatutako lursailak okupatzen dituen eraikina hiri-ehunean integratzea jasotzen da. Beraz, 14 etxebizitza berri planteatzen dira. Espazio libreen sistema orokorra eta ekipamendu komunitarioen sistema orokorra bat etorriko lirarteke 0. aukeraren proposamenarekin. Aukera honek artifizializatu gabeko lurzoruko 12.701 m² okupatzea dakar. 2. aukera: Aukera honek bide bera eta aparkalekuak planteatzen ditu 1. aukeran deskribatutako zonaren iparraldean, baina Kale Txiki taberna inguratzen duen landan bi eraikin proposatzen dira (S+B+I+BC eraikuntza-profila), eta horietako bakoitzean hiru etxebizitza atxiki. Etxeazpiko lurzatian, kasu honetan, sei etxebizitzako eraikin bakarra eraikitzeko aukera aurreikusten da (S+B+II eraikuntza-profila). Hirigunearen hego-mendebaldean bost eraikin proposatzen dira guztira (S+B+I+BC eraikuntza-profila), bi etxebizitzakoa bakoitza. Beraz, 22 etxebizitza berri planteatzen dira. Espazio libreen sistema orokorra eta ekipamendu komunitarioen sistema orokorra ere bat



etorriko lirateke 0. aukeraren proposamenarekin. Aukera honek artifizializatu gabeko lurzoruko 12.988 m² okupatzea dakar.

- 3. aukera: Herrigunearen iparraldean, 2. aukeran deskribatutako bide beraren, aparkalekuen eta etxebizitzaren garapena proposatzen dira (bi eraikin Kale Txiki tabernatik hurbil dagoen zelaian, bakoitzean 3 etxebizitza atxikita, eta 6 etxebizitzako eraikin bat Etxeazpiko partzelan). 1. aukeran bezala, nukleoaren hego-ekialdeko sarreratik hurbil, bi etxebizitzako eraikin bat proposatzen da (S+B+I+BC eraikuntza-profila), eta, aldi berean, gaur egun urbanizaezin gisa sailkatutako lursailak okupatzen dituen alboko eraikina hiri-ehunean integratzea planteatzen da. Eremu horretan, errepidearen beste aldean, bi eraikin berri ere proposatzen dira (S+B+I+BC eraikuntza-profila), bakoitza bi etxebizitzakoa. Beraz, 18 etxebizitza berri planteatzen dira. Aukera honek 0. aukeraren planteamenduei eusten die, hiriguneko espazio libreen eta ekipamendu komunitarioaren sistema orokorrari dagokionez. Aukera honek artifizializatu gabeko lurzorua 13.958 m² okupatzea dakar.
- 4. aukera: Aukera honek bigarren eta hirugarren aukeretan aurreikusitakoa jasotzen du, Kale Txiki tabernaren inguruko zelaian eta Etxeazpi lurzatian. Halaber, bizitegi-garapen berri bat aurreikusten da hego-mendebaldeko hegalean, eta, bigarren aukerak ez bezala, lau eraikin izango lituzke (S+B+I+BC eraikuntza-profila), bakoitza bi etxebizitzakoa. Eremu berri bat proposatzen da (espazio libreen sistema orokor gisa kalifikatuko dena) hiriguneko espazio libreari jarraipena emango diona, eta aparkaleku bat, hirigunean autoen presentzia murriztuko duena eta aparkalekurik eza konponduko duena. Beraz, 20 etxebizitza berri planteatzen dira. Aukera honek 0. aukeraren planteamenduei eusten die, hiriguneko espazio libreen eta ekipamendu komunitarioaren sistema orokorrari dagokionez. Aukera honek artifizializatu gabeko lurzoruko 14.614 m² okupatzea dakar.
- 5. aukera: Aukera honek Kale Txiki eta Etxeazpi lurzatia inguratzen dituen zelairako bigarren, hirugarren eta laugarren aukeretan aurreikusitakoa jasotzen du. Bizitegi-garapen berri bat planteatzen da gunearen hego-ekialdeko sarreratik hurbil. Bertan hiru eraikin proposatzen dira (S+B+I+BC eraikuntza-profila), bakoitza bi etxebizitzakoa. Eraikin horietara atzeko bide batetik sartuko litzateke, alboko aparkalekuekin, eta, horrela, plazan autoentzako aparkalekuak kentzea ahalbideetako litzateke. Beraz, 18 etxebizitza berri planteatzen dira. 0. alternatibaren planteatutako hiriguneko espazio libreen eta ekipamendu komunitarioaren sistema orokorrari eusten zaio. Aukera honek artifizializatu gabeko lurzoruko 12.692 m² okupatzea dakar.

Hasierako dokumentu estrategikoko alternatibaren ingurumen-azterketak ondorioztatzen du, 0. aukera kontuan hartu gabe, ez dagoela alde handirik bost alternatibek ingurumen-balio eta arrisku horien gainean duten inpaktuan, aztertutako ingurumen-baldintzatzaileen arabera (lurzorua okupazioa, gaitasun agrologikoa, lurrazaleko ibilguak, intereseko landaredia eta fauna, paisaia, kultura-ondarea, higadura-arriskua, zarata eta irisgarritasuna eta mugikortasuna).

2. - EGINDAKO KONTSULTAK

Gaintzako Udalaren eskaera jaso ondoren, Ingurumen Administrazioako Zuzendaritzak kontsulta-izapidea egin zien 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta 10/2021 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako eragindako administrazioei eta interesdunei. Fase horretan, honako entitate eta erakunde hauei egin zaie kontsulta:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.



- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Industria eta Trantsizio Energetikoaren Zuzendaritza.
- Abaltzisketako Udala.
- Zaldibiako Udala.
- Orendaingo Udala.
- Baliarraingo Udala.
- Altzagako Udala.
- IHOBE.
- EEE.
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Kantauriko Ur Konfederazioa.
- Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.
- Goieki (Goierriko Garapen Agentzia).
- Goimen (Goierriko Landa Garapenerako Elkarte).
- Aranzadi Zientzia Elkarte.
- Eguzki Talde Ekologista.
- Itsas Enara Ornitologi Elkarte.
- Haritzalde Naturzaleen Elkarte.
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa taldea.
- Landarlan Ingurumen Elkarte.
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).

Era berean, aurrerakina eta hasierako dokumentu estrategikoa eskuragarri egon dira GFAko Ingurumen Administrazioako Zuzendaritzaren Interneteko atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus), publiko orokorrak egoki irizitako ingurumen-ekarpenak egiteko aukera izan zezan.

Irismen-dokumentu hau egin den egunera arte, erantzun hauek jaso dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiak Kultura Sailaren datu-basean dauden ondare-elementuen fitxak bidali ditu, ondare arkitektoniko eta arkeologikoko elementuen azterketan kontuan har ditzaten. Bestalde, jakinarazi du Gaintzako HAPOko kultura-ondarearen katalogoa bat etorri beharko dela azaroaren 30eko 14/2023 Legean ezarritako babes-mailekin (lege horrek Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzen du). Alde horretatik, Gaintzako udalerrian babesteko proposatzen diren elementuen zerrenda bat jasotzen du, Ondarea Kultura Ondarearen Zentroak egindakoa, eta beste bat ondare historikoaren zerbitzuak 2011n Eusko Jaurlaritzako Kultura Departamentuari babesteko eskatu zion elementuena (baserriak eta elizak).
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du, *a priori* eta HAPOaren hasierako dokumentazioaren arabera, aztertutako aukeretan proposatutako jarduketek ez dutela eraginik kultura-ondarean. Nolanahi ere, adierazi du HAPOaren izapidetze-fase aurreratuago batean xehetasun handiagoz aztertu beharko dela eragin hori, eta zehaztu egin beharko dela babes-araubidea eta nola aplikatzen zaion kultura-ondareko elementu bakoitzari. Ildo horretan, txostenak honako hauek jasotzen ditu: Gaintzako interes arkitektonikoa eta arkeologikoa duten higiezinei dagokienez, dokumentuan onartzeko sartu beharko diren babes-irizpideak; Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Ondasun gisa deklaraturako elementuetarako indarrean dauden arau-preskripzioak eta babes-irizpideak; eta 6/2019 Legearen aldaketak dakartzan berrikuntzak, zeinak zuzenean eragiten baitote kultura-ondarearen babesari, udalaren hirigintza-plangintzaren bidez.



- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak honako hau jakinarazten du Eusko Jaurlaritzak onartutako babes zibileko lurralde-planen eta plan berezien aurreikuspenetan jasotako Gaintzako udalerriko babes zibileko arriskuei dagokienez:
 - Arrisku sismikoa. Udalerrria VI. Intentsitate-eremuan dago, Arrisku Sismikoaren aurreko Larrialdi Planaren arabera, eta, beraz, ez du Larrialdi Sismikoko Planik egin behar. Hala ere, eraikuntza berrietan kontuan hartu beharko da irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak onartutako eraikin sismoerresistenteak eraikitzeko araua.
 - Baso-sutearen arriskua. Jakinarazi du, hirigintza-plangintzari begira, kontuan hartu beharko direla EAEko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Bereziaren VI. eta VII. eranskinetan jasotako baldintzak, baso-suteetarako arrisku handiko eremuetako edo hiri- eta baso-interfazeko erabileretarako Autobabes Plan bat egiteko betebeharrari dagokionez, bai eta kanpaleku-instalazioei dagokienez ere.
 - Arrisku teknologikoa. Gaintzaren kasuan, ez da identifikatu salgai arriskutsuen garraioari lotutako istripu-arriskua duen errepiderik, eta ez da jakinarazi SEVESO III araudiari lotutako establezimendurik, substantzia arriskutsuak tarteko diren istripu larriei dagokienez.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak jakinarazi du HAPOak kontuan hartu beharko dituela Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko kapitulu hauen edukiak: III. kapitulua (lurzoruaren erabilerak eta jarduerak definitzea), VI. kapitulua (erabilera onargarriak eta debekatuak argitzea eta aurretik zeuden gunetan oinarritutako hazkunderetarako baldintzak ezartzea) eta VII. kapitulua (gainjarritako baldintzatzaileetan aplikatzeko arauak). Era berean, kontuan hartu beharko ditu LAParen Gidalerro Orokorren II. kapituluko 11., 12. eta 13. artikuluetako edukiak. Artikulu horiek lurzoru urbanizaezinean nekazaritzako eraikuntza berriak, nekazaritzako ustategiari lotutako etxebizitza isolatua eta abeltzaintzako instalazio intentsiboak eraikitzeko baldintzak arautzen dituzte, hurrenez hurren.

Nekazaritza-lurzoruaren okupazioari dagokionez, adierazi du planteatutako hiri-garapeneko aukera guztiek (0. aukerak izan ezik) balio estrategiko handiko lurzoruak okupatzea dakartela, eta, beraz, beharrezkoa dela Nekazaritza eta Basogintzaren LAParen 10. artikuluan ezarritako Nekazaritzako Sektorearen gaineko Eraginaren Ebaluazioaren protokoloa aplikatzea, eta ebaluazio horren emaitzak erabiltzea HAPNa izapidetzeko ondorengo faseetan garatu beharreko alternatibari buruzko erabakiak hartzean, eta dagozkion prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak zehaztea. Gainera, nekazaritzaren arloan eskumena duen foru-organoaren txostena eduki beharko da, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 16. artikulua ezartzen duen bezala. Azkenik, gomendatzen du txertatzea landa- eta natura-espazioak hobetzeko ekintza positiboko neurriak, nekazaritza-jarduerari eustera bideratutako jarduketako programak, abandonatutako edo desagertzeko arriskuan dauden lurrak eta jarraipen-sistemak kudeatzera bideratutakoak.
- Uraren Euskal Agentziak (URA) jakinarazi du txosten-eskaera Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari helarazi zaiola, horri buruzko informazioa ematea komeni dela uste badu, hala egin dezan.
- IHOBEk adierazi du dokumentazioan kontuan hartu dela lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo inoiz izan dituzten lurzoruaren inbentarioan sartutako lurzatiak daudela. HAPOaren aurrerapenean proposatutako garapen-aukerek inbentariatutako lurzati horietan eraginik ez badute ere, lurzoruaren kalitatearen adierazpena izapidetu beharko da, baldin eta lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada. Era berean, adierazten du proiektu berriak gauzatzeak (lurzoruaren erabilerak aldatzea badakar) lurzoruaren funtzioak optimizatzen lagunduko duten ekintzak eta neurriak jaso behar dituela, lurzoruaren okupazioa eta zigilatzea murriztuko dutenak, higadura minimizatuko dutenak, karbonoa bahitzeko duen ahalmena maximizatuko dutenak eta, hala badagokio, karbonoaren galera eta berotegi-efektuko beste gas batzuen isurpena murriztuko dutenak. Horretarako, proiektu horiek babesteko neurrien erabilera aztertzea proposatzen du (lurzoria iragazkortzea eta iragaztea erraztuko duten irtenbideak, drainatze jasangarriko erabilera teknikoaren bidez; naturan oinarritutako konponbideen

bidez birnaturalizatzen bideratutako espazio publikoak diseinatzea; irizpide bioklimatikoak eta energia-eraginkortasunekoak kontuan hartzea espazioen antolamenduan eta eraikuntzan; eta ekonomia zirkularreko neurriak sartzea). Klima-aldaketak planean izan ditzakeen ondorio kaltegarriei dagokienez, adierazi du Gaintzako udalerrirako datuak nahiko altuak direla lehorteen inpaktu-kateetarako nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean eta giza osasunean eragina duten bero-boladetarako.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdearen Departamentuko Landa Garapenerako eta Lurralde Orekarako Zerbitzuak jakinarazi du, kontuan hartuta Gaintzako HAPOren helburu orokorren artean gazteak udalerrian geratzea sustatzea dagoela, oniritzia ematen diola hirigintza-garapen berrietarako proposatutako lurzoru urbanizaziona (gaur egun balio estrategiko handiko lurzoru gisa kalifikatua) lurzoru urbanizagarria izateari. Ildo horretan, 1. edo 3. aukera hartzea proposatu du, zati batean eraikita eta urbanizatuta dauden zonetan kokatzen baitira, eta etxebizitza-ereduak dentsitate handikoekin eta erabilera-nahasketakoekin bat etortzea, erabilgarri dagoen lurzoru ahalik eta gehien aprobetxatze aldera.

Era berean, adierazten du, nekazaritza-lurzoruaren erabilera kontserbatu eta sustatzeari buruzko urriaren 2ko 193/2012 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, HAPOk kalte-ordain proposamen bat jaso beharko duela galduko diren nekazaritza-lurzatiengatik, udalerriko nekazaritza-lurren funtsak kontuan hartuta. Horretarako, egokitzat jotzen du Gaintzako Udalaren jabetzako lurrik Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurzoru Funtsa bideratzea, eta, 2. puntuaren ezarritakoaren arabera, kalte-ordain proposamen bat egitea eragindako ustategietatik hurbilen dauden nekazaritza-birgaitzerako lursailetan, konpentsaziora behartuta daudenek izan edo eskura ditzaketenean. Udalak nekazaritza-lurrik ez badu, kalte-ordaina funts ekonomikoen bidez bideratuko da lurzoru-funtsa, helburuak betetzeko ekarpenak egin ditzaten.

Azkenik, gogorarazten da beharrezkoa dela EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordeari eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailari jakinaraztea eraginpeko balio estrategiko handiko lurzoruek izango duten aldaketa, EAEko Nekazaritza eta Basogintzaren LAPeko planoetan sartzeko.

Irismen-dokumentu hau egin ondoren erantzunik jasotzen bada, ahalik eta lasterren bidaliko zaio Gaintzako Udalari, HAPOa eta ingurumen-azterketa estrategikoa egitean kontuan har dadin.

3. - INGURUMEN ARLOKO HELBURU ESTRATEGIKOAK, JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK ETA ARAU ITURRIAK

Gaintzako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak, udal-lurraldearen antolamendu integralerako oinarritzko tresna den aldetik, aukera eman beharko du, ingurumen-alderdiak behar bezala txertatuz, hirigintza- eta azpiegitura-jarduketan ondoriozko ingurumen-inpaktu negatiboak minimizatzen ez ezik, udalerriararen ingurumen-kalitatea hobetzen laguntzeko ere.

A. HAPOaren ingurumen-helburu estrategikoak, gutxienez, jasangarritasun-helburu eta -irizpide hauetan oinarritu behar dira:

- Ingurumenarekiko kalteak prebenitzeari lehentasuna ematea, kalte horiek zuzentzeko eta konpentsatzeko neurrien gainera; eta, horretarako, ingurumen alderdiei dagokien garrantzia ematea HAPOa egiterakoan. Horrez gain, ingurumena hobetzeko proiektuak eta jarduerak planteatu eta txertatuko dira planean.
- Lurzoruaren erabilerekin esleipen bat ezartzea, kontuan hartuta duena natura- eta nekazaritza-baliabideen kalitatea eta hauskortasuna, ingurumen-kalitatea, klima-aldaketa eta aurreikusitako erabilerekin dagokienez zonaldeak hartzeko gaitasuna.
- Lurzoruaren artifizializazioa eta hazkunde demografikoa banantzea. Sailkatutako lurzoru okupazioa agortzea, lurzoru berri bat sailkatu aurretik, eta lurzoru urbanizagarri berrien sailkapena behar bezala justifikatzea haien nahikotasun eta egokitasunean oinarrituta, benetan dauden premiak asetzeko behar den lurzoru zorrotz dimentsionatuta. Inguruabar sozioekonomikoen eta indarrean



dauden jasangarritasun-irizpideen arabera hirigintza-garapenik ez duten lurzoruei sailkapena kentzea eta lurzoru urbanizaeziner "itzultzea".

- Hiri-garapen eta azpiegitura posibleak aurkitzea eta horiek antolatzea, honako hauek ziurtatzeko:
 - Natura-baliabide baliotsuen gaineko eragina minimizatzea (bertako landaredia, egoera naturalean dauden ibilguak, balio agrologiko handiko lurzoruak, etab.).
 - Ur-hornidurako eta -saneamenduko sareetarako sarbidea, garapen horien zerbitzu egokia bermatzeko.
 - Efizientzia energetiko pasiborako baldintza egokiak ezartzea.
- Jasangarritasun energetikotik eratorritako betekizunak lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan txertatzea. Ildo horretan, hirigintza-plangintzak energiaren autohornikuntza bultzatuko du, lehenasuna emanez iturri berriztagarrietatik energia lortzeko soluzioak ezartzeari eta energia sortzeko eta banatzeko sistema zentralizatuak garatzeari. Era berean, lehendik dauden eraikin eta espazio urbanizatuen energia-efizientziaren hobekuntza bultzatuko du, eta irizpide bioklimatikoak erabiliko ditu etorkizuneko eraikin eta espazio publikoen plangintzan, proiektuan eta exekuzioan, baita energia-kontsumoa minimizatuko duten sistema pasibo eta aktiboen erabileran.
- Dentsitate ertain-altua eta erabileren nahasketa eta konplexutasun ona duten hiri-eremu trinko eta askotarikoei lehenasuna ematea, dentsitate baxuko edo oso baxuko bizitegi-garapen berriak eta etxebizitza isolatu edo atxikien tipologia saihestuz, horiek sustatzen duten hiri-eredua sakabanatua, lausoa eta lurzoruaren, energiaren eta materialen kontsumitzaile handia baita.
- "Etxebizitza hutsaren" okupazioa eta eraikitako ondarearen birgaitzea sustatzea, eraikin berriak eraikitzea saihestuz.
- Oraingo hiri-bilbeen optimizazio funtzionala eta birmoldaketa bultzatzea, betiere bilbe horiek birgaituz, berregituratuz edota berrituz, eta abandonatutako eremuak berreskuratzea, lurzoru nahiz baliabideak optimizatzeko estrategia gisa.
- Hiriaren zatiketa edo sakabanaketa ekiditea, erabilera edo jarduera ezberdinak behar bezala integratuta eta espazialki kohesionatuta jarrai dezaten ahalbidetuz, mugikortasun premia handirik sor ez dadin.
- Mugikortasun arrazionalagoa eta jasangarriagoa sustatzea, banaketa modala oinez, bizikletaz eta garraio kolektiboz bideratzeko eta ordezko erregaiak erabiltzen dituzten garraiobideak sustatzeko.
- Biodibertsitateko elementu berezien gaineko eragina saihestea (bertako landaredia, espezie mehatxatuen habitatak, etab.), eta natura-ondarearen egoera orokorrari eta ingurumen-zerbitzuak emateko duen gaitasunari eustea edo hura hobetzea.
- Lurzoru urbanizaezinaren antolamendu egokia ezartzea, landa-ingurunea zaintzeko moduan, oreka bilatuz haren garapen ekonomikoaren, ekosisteman duen eginkizunaren (lehengaien hornidura, ingurunearen kontserbazioa) eta ingurumen- eta paisaia-kalitatearen baldintza egokien artean.
- Espazio eta elementu naturalen kalitatea eta funtzio-aniztasuna kontserbatzea eta lehengoratzea, udalerriko azpiegitura berdea behar bezala planifikatuz eta kudeatuz, sustatzeko balio ekologiko handiko eremuen arteko konektibitatea eta hobetzeko natura-ondarearen egoera globala eta zerbitzu ekosistemikoak emateko duen gaitasuna.
- Paisaiaren faktorea plangintzan txertatzea, eta hura Paisaiaren Europako Hitzarmenean ezarritakoari jarraituz babestu, kudeatu eta antolatu dadin sustatzea.
- Baliabideen balantzean (ura, energia eta materialak) ondorio kaltegarriak murriztea, sortutako hondakinak eta kutsatzaileak bezalaxe, bai eraikuntzan (eraikinak, egiturak, urbanizatzeko-lanak, eta abar), bai funtzionamendu fasean; eta zikloak ixte aldera jotzea.



- Ur-baliabideak eta ur-ingurunea –lurpeko edo lur gaineko ur kontinentalak– babestu, zaindu eta leheneratzea, Uraren Esparru Zuzentarauaren helburuak lortzen saiatuta. Ildo horretan, uren arloan dagoen araudiak ezarritako atzerapenak eta zortasunak errespetatuko dira, eta egungo eta etorkizuneko isurketen tratamendu egokia bermatuko da.

B. Bestalde, Gaintzako HAPOaren formulazioan, honako arau eta dokumentu hauetan jasotako jasangarritasun-irizpideak eta -printzipioak hartuko dira kontuan:

- Nazio Batuen 2030 Agenda.
- Europar Batasunaren Ingurumen Arloko VIII. Ekintza Programa Orokorra, 2030era artekoa.
- Europako Itun Berdea.
- 2030erako Euskadiko Ingurumen Esparru Programa.
- Euskadiko Lurzorua Babesteko 2030erako Estrategia.
- Euskadiko Baso Plangintza 1994-2030.
- 2030erako Euskadiko Biodibertsitate Estrategia.
- Euskadiko Geodibertsitate Estrategia.
- Klima-aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategia.
- Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030
- Bultzatu 2050 Hiri Agenda.
- 2050 Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia.
- Euskadiko Energia Estrategia 2030.
- Gipuzkoako Klima Aldaketaren aurkako Borroka Estrategia 2050.
- Urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duenaren 3. eta 20. artikulua.
- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 3. artikulua.
- Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen 2. artikulua.
- Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 2. artikulua eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 3. artikulua.
- Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 3. artikulua.
- Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 4. artikulua.
- Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 6. artikulua.
- Planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 1. eta 2. artikulua.
- Euskadiko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 5. eta 6. artikulua.
- Euskadiko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 2. artikulua.



- Azpiegitura Berdearen eta Konektibitate eta Leheneratze Ekologikoen Estrategia Nazionalaren 2. 3. 8. atala.
- C. Azkenik, honako hauek dira irismen-dokumentu hau egitean kontuan hartu diren eta Gaintzako HAPOa egitean kontuan hartu behar diren ingurumen-arau nagusiak:

Europako araudia

- Europako Kontseiluak 1992ko maiatzaren 22an emandako 92/43/EEE Zuzentaraua, habitat naturalak eta fauna zein flora basatia kontserbatzeari buruzkoa.
- 2000/60/EE Zuzentaraua, ur politiken alorrean batasun mailako esparrua ezartzekoa.
- 2004/49/EE Zuzentaraua, zaratari buruzkoa.

Estatuko araudia

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa.
- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena.
- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzkoa.
- 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legea, Natur Ondareari eta Bioaniztasunari buruzkoa.
- 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, mendiei buruzkoa.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zaratari buruko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatze akustikoari, kalitate helburuei eta soinu igorpenei dagokienez.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina eta hura garatzeko erregelamenduak onartzen dituena.
- 35/2023 Errege Dekretua, 2022-2027 Kantauriko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- 197/2023 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Espainiako zatiaren uholde-arriskua kudeatzeko plana berrikustea eta eguneratzea onartzen duena.
- 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzekoa.
- 16/1985 Legea, ekainaren 25ekoa, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa.

Autonomia erkidegoko araudia

- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak.
- 534/2009 Dekretua, irailaren 29koa, Beasain-Zumarragako (Goierri) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala behin betiko onartzen duena.
- 177/2014 Dekretua, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Partziala behin betiko onartzen duena.

- 415/1998 Dekretua, EAeko (isurialde kantauriarra) Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duena eta ondorengo aldaketa (449/2013 Dekretua).
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
- 4/2015 Legea, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta hura garatzeko dekretua.
- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, eta ondorengo aldaketak.
- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.
- 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzekoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa.
- 7/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Landa Ingurunearen Garapeneko.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, nekazaritza eta elikagaigintza politikari buruzkoa.
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
- 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzkoa.

Gipuzkoa

- 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako mendiei buruzkoa.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duen 2013ko ekainaren 10eko 2/2013 Foru Araua.

4. - INGURUMEN-EBALUAZIOAREN XEDE DEN ESPARRU GEOGRAFIKOA. GAINZAKO UDALERRIKO BALIABIDE ETA EREMU GARRANTZITSUAK.

Ebaluazioaren xede den eremu geografikoak nahikoa izan beharko du planean aurreikusitako jarduketek eragindako afekzio guztiak aintzat hartzeko, hirigintza-jarduketak ez ezik, arau-zehaztapenen ingurumen-ondorioak ere barnean hartuta. Oro har, Gaintzako udalerria hartuko du, nahiz eta zenbait alderdik udal-mugartea gainditzen duen lurralde baten gaineko eraginak aztertzea eska dezaketen: adibidez, aztertzerakoan paisaiaren edo ur-baliabideen gaineko eragina.

Ingurumen-ebaluazioa xehetasun handiagoz egingo da antolamendu-alternatibek jarduketa kaltegarririk aurreikusten duten eremuetan, hala nola hirigintza-garapenak planteatzen diren eremuetan.

Kontuan hartuta udalak bidalitako dokumentazioa, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza honetan dagoen informazio bibliografikoa eta kartografikoa, eta beste administrazio batzuetatik jasotako erantzunak, ingurumen-interes bereziko baliabide eta espazio hauek identifikatu dira Gaintzako udalerrian:

A. Zuhaitz-masa autoktonoak eta batasunaren intereseko habitatak. Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, baso-landaketek udal-mugarteko egungo landarediaren % 37,78 hartzen dute.

Bigarren landaredi-mota ugariena (% 31,77) baso eta heskai naturalez osatuta dago (pagadi azidofiloa, pagadi kaltzikola edo eutrofoa, harizti azidofiloa, harizti-baso misto atlantikoa, eta abar), eta, ondoren, belardi eta larreak (% 27,58) eta iratze-leku eta sasitzak (% 1,18). Batasunaren intereseko habitatei dagokienez, horiek udalerrriaren % 27,82 osatzen dute, bi talde nagusitan banatuta: *6510 Altitude baxuko sega-larreak* (% 27,58); eta *91E0 lehentasunezko habitata, Alnus glutinosa- eta Fraxinus excelsiorreko baso alubialak* (% 0,24).

Aurrerapenak behar bezala proposatzen du, LAGetan ezarritakoarekin bat etorritik, baso naturalak eta erdinaturalak (hariztiak, pagadiak, etab.) eta Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatak (alubioi-basoak) *Babes Bereziko* kategorian sartzea.

Ildo beretik, eta ahal den neurrian, kontserbazio aktiboko neurriak hartzeko ahalegina egingo da intereseko landaredia babesteko: hala nola kontserbazioa eta masa helduagoetaranzko bilakaera bermatzeko helburuarekin titulartasun pribatuko balio ekologiko handiko basoak udalaren lurzoruan ondarean sartzea edo lurraldea zaintzeko akordioak ezartzea.

Aurrerapenean proposatutako bizitegi-garapeneko bost alternatibei eta intereseko landaredian izan dezakeen eraginari dagokienez, eragindako Batasunaren intereseko habitat bakarra da *6510 Altitude baxuko sega-larreak*, eta habitat hori Gaintzako udalerrian eta Kantauriko isurialdean zabal banatuta dagoen arren, azkenean gauzatuko den bizitegi-okupazioaren alternatiba hautatzerakoan, eragin hori minimizatzea lehenetsiko da.

- B. **Fauna.** Gaintzan, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren arabera katalogatutako sei espezie daudela ikusi da (okil txikia, interes bereziko; okil beltza, bakana; sai arrea, interes bereziko; miru gorria, desagertzeko arriskuan; murgil handia, interes bereziko; txilinporta txikia, bakana). Populazio horiei kalterik ez eragiteko, HAPOak babes egokia aurreikusi beharko du espezie horien intereseko eremuetarako, baldin eta horietan populazio horientzat mehatxu izan daitezkeen urbanizazio-, antolamendu- edo ustiapen-jarduketak aurreikusten badira.
- C. **Paisaiaren kalitatea.** Udalerriko zati handi bat EAEko Paisaia Berezi eta Nabarmenen Katalogoaren arabera katalogatutako bi ikus-arroren barruan dago: Baliarrain eta Zaldibia. Antolamendurako oinarritzeko irizpide gisa, plangintzaren eskala desberdinetan paisaiaren kalitatea mantentzea eta hobetzea sartu behar da, bai HAPOaren bidez egindako egitura-antolamendua eta erabilera-esleipena, bai eta garapen-plangintzan urbanizazio-baldintzak ezartzea ere. Era berean, eta maila txikiagoan, iradokitzen da garapen-eremuetan ezartzen diren hirigintza-jarduketek paisaia-integratioko azterlan bat izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 7. artikuluan jasotzen den bezala.
- D. **Jabari Publiko Hidraulikoa eta haren babes-eremuak.** Gaintzako udalerria Oriako Unitate Hidrologikoan dago, eta arroko bi isurialde bereizten dira: batek Ibiur ibairanzko drainatze-eremua du (Elosegi eta Artxueta errekek bertara isurtzen dute) eta, bestea, Zaldibia ibairanzko drainatze-eremua (Aranburu errekek bertara isurtzen du).

EAEko ibaien egoeraren jarraipena egiteko sareak Zaldibiako ur-masa kontrolatzeko estazio bat du, Gaintzatik nahiko gertu. Eskuragarri dauden azken txostenetako datuen arabera (2022ko datuak), "Zaldibia" ur-masak egoera ona du aztertutako parametro guztietarako. Beraz, esan daiteke ur-masak egoera ekologiko ona duela.

Nolanahi ere, ur-masen babes kontuan hartu behar da HAPOan, eta bere gain hartuko du lurrazaleko zein lurpeko ur-masen egoera ez okertzeko helburua. Ondorio horietarako, ingurumen-azterlan estrategikoak baloratu beharko du nola eragingo dion jabari publiko hidraulikoari HAPOak planteatzen dituen jarduketak-alternatiben garapenak, ez soilik ibilguetan zuzenean eragiten dutenenak, baita ere, adibidez, hondakin-uren isurketek izan ditzaketen zeharkako ondorioak. Inpaktu horiek minimizatzekeo neurriak ere proposatu beharko dira. Ahal den neurrian, ibaiertzeko zerrenda lehenetsitzeko eta birnaturalizatzeko proposamenak egingo dira.



Jabari publiko hidraulikoari eragiten dioten edo haren babes-eremuetan dauden jarduketetarako, arroko erakundearen nahitaezko administrazio-baimena beharko da. Bestalde, erabilera publikoko zortasun-eremuak bere helburu naturalerako balio behar du, hau da, ibai-ekosistema eta jabari publiko hidraulikoa kontserbatzeko eta babesteko. Beraz, oro har, ez du funtsezko aldaketarik egin behar, ezta betelanak egiteko tokiari dagokionez ere.

Lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioan, ibilgu guztiak Azaleko Uren Babesaren kategorian sartu beharko dira, eta dagozkien hirigintza-fitxetan EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzen diren LPSaren arabera errespetatu beharko diren atzerapenak sartu beharko dira; ahal den neurrian, ibaiertzeko zerranda lehengoratzeko proposamena gehituko da.

Bestalde, lurpeko ur-masak babestu beharko dira, akuiferoak kutsatzeko kalteberatasun ertaina edo handia duten kokalekuetan erabilera kutsatzaileak saihestuz.

- E. **Azpiegitura berdea.** HAPOaren aurrerakinean, lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari gainjarritako baldintzatzaile gisa tokiko korridore ekologikoen sare bat ezartzea proposatzen da, eta hori bat dator Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 4. artikuluan ezarritakoarekin. Horiek definitzeko, eta dokumentazioan aipatzen den bezala, honako hauek hartuko dira kontuan: udalerrri mailako elementu konektoreak (udalerrriko gainazaleko ibilgu eta oztopo nagusiak, espazio libreen sistema orokorra, konektatzeko interesa duten landaredia, etab.), EAEko korridore ekologikoen sarearen proposameneko elementuak (Ibiur ibaia, konektatzeko interes berezia duen ibai-zatia delako, Ernio-Gazume eta Aralar-Izarraitz arteko lotura-korridorea), Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarearen proposameneko elementuak (GAB-GOTO-2 Funtzionaltasun Ekologikorako Intereseko Eremua) eta, hala badagokio, konektore ekologiko gisa potentzialtasuna duten Goierriko Lurralde Plan Partzialeko elementuak.
- F. **Nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzorua.** Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren sailkapenaren arabera, Gaintzako udal-mugarterako landa-lurzoru asko Basoa eta Basoa-Mendi Barbana kategorien barruan daude, 348,37 hektareako azalerarekin. Hurrengo kategorian, azalerari dagokionez, Trantsizioko Landa Paisaiari dagokio (148,26 ha), eta Balio Estrategiko Handiko lurzorua 89,25 ha-ko azalera esanguratsuari dagokio.

Nekazaritzan erabiltzeko ahalmen handia duten lurzorua babestea garrantzitsua denez, eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSa betez, HAPOak berriaz jaso beharko ditu plan honek definitutako Balio Estrategiko Handiko eremuei lotutako mugaketa eta araudia. Era berean, lurzoru urbanizaezinen gainerako kategorietan sartu beharreko erabileren araubidea bat etorriko da Nekazaritza eta Basozaintzako LPS horretan ezarritakoarekin.

Bestalde, bizitegi-garapenean aurrerapenean hasiera batean planteatutako bost alternatibek antzeko azalera eragiten dute, balio estrategiko handiko lurzoruei dagokienez. Nolanahi ere, HAPOa izapidetzeko prozesuan zehar, non aukeratzen diren hiri-garapeneko alternatibak zehazten joango baitira, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren 10.e artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, beharrezkoa izango da nekazaritza-sektorearen gaineko eragina ebaluatzea, kontuan hartuta bai nekazaritza-lurzoruen okupazioa, bai HAPOan jasotako proposamenek eragin ditzaketen nekazaritza-ustiatzearen gaineko inpaktua, oinarritzat hartuta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan ezarritakoa, «Planak aplikatzeak eta obrak eta jarduerak egiteak eragindako nekazaritza-sektorearen gaineko eraginaren ebaluazioa»-ri dagokionez. Ebaluazio hori ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketaren barruan egin ahal izango da.

Ebaluazio horretan oinarrituta, dagozkion prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak zehaztuko dira, eta, horretarako, GFAko Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko Landa Garapeneko eta Lurralde Oreko Zerbitzuari egindako kontsultei emandako erantzunean adierazitakoa kontuan hartu eta aztertuko da.

Zentzu honetan, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Legearen 16. artikulua adierazten duen bezala, kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoan balio agrotikoko handiko lurri buruz

aurreikusitako edozein proiektu edo jarduera administratibok nekazaritza-arloan eskumena duen foru-organoaren txostena beharko duela, behin betiko onartu aurretik.

- G. **Kultura ondarea.** HAPOa idazteko ondorengo faseetan, hirigintza-dokumentuak arkeologia- eta arkitektura-ondarearen katalogo bat eta babes-araudi bat izan beharko ditu, kontuan hartuta Euskal Kultura Ondarearen Zentroak eta GFAko Kultura Zuzendaritzak aurreiazko kontsultei erantzuteko igorritako aginduak eta esku hartzeko irizpideak. Horrekin batera aurkeztuko dira planoak eta elementuetako bakoitzaren banakako fitxak. Fitxa horietan jasoko dira elementuaren kokapena, deskribapen orokorra, ondare-intereseko balioak, argazkiak, babes-araubidea eta kontserbazio-egoera.

Bestalde, ingurumen-azterketa estrategikoak hasierako dokumentu estrategikoaren kultura-ondareari buruzko atala berrikusi eta osatu beharko du, barnean hartzen duen informazio idatzia eta grafikoa bat etor dadin HAPOaren arkeologia- eta arkitektura-ondarearen katalogoan ezarritakoarekin. Era berean, sakonago aztertu beharko du ondarean duen eragina, eragin negatiborik gerta ez dadin.

- H. **Arriskuak.** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31. 1 b) artikuluekin bat etorriz, udalerriko arrisku naturalen mapa bat erantsiko zaio ingurumen-azterketa estrategikoari. Halaber, ingurumen azterketa estrategikoak neurri zuzentzaileak ezarriko ditu, dauden arriskuak murrizteko edo areagotu daitezkeen ekiditeko; eta proposatutako plangintzak kontuan hartu beharko ditu ingurumen arrisku horiek erabilerak eta jarduerak arautzerakoan.

- I. **Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua.** Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioaren arabera, Gaintzan kutsatuta egon daitezkeen lurzorua dituzten bi lurzati identifikatu dira: bata zabortege bati dagokio, eta, bestea, industria-lurzati bati.

Aurrerapenean, kutsatuta egon daitezkeen lurrak gainjarritako baldintzatzailetzat hartzea proposatzen da. Lurzati horietan, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen arabera, kutsagarriak izan daitezkeen instalazioak edo jarduerak izan dituen edo dituen lurzoru baten erabilera aldatzen bada, lurzoruaren kalitatearen adierazpena egin beharko da.

- J. **Klima-aldaketa.** HAPOak klima-aldaketaren aurka borrokatzeko irizpideak onartu beharko ditu, bai emisioak arintzeari dagokionez (eraginkortasun energetikoa, berriztagarrien sustapena, mugikortasun motorizatuaren beharrak murriztea, etab.), bai horren ondorioetara egokitzeari dagokionez. Bi alderdi horien irizpideak zehazteari dagokionez, kontuan hartu ahal izango dira klima-aldaketak Gipuzkoako Hirigintza Plangintzan dituen ondorioak baloratzeko eta integratzeko tresnaren dokumentazioan ezarritakoak (<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena>); izan ere, egokiagozat jotzen dira, hala badagokio, tresnak berak HAPOan horretarako baimentzen dituen antolamendu-proposamenak aztertu ondoren. Oro har, eta egokitzapen-beharrei dagokienez, Klima-aldaketaren aurrean EAEko udalerriek duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa izeneko IHOBEn azterlanean, honako hauek nabarmentzen dira Gaintzako klima-arrisku nagusien artean: lehorteek nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorean duten inpaktua eta giza osasunean eragiten duten bero-boladak.

5. - LURZORU URBANIZAEZINA ANTOLATZERAKOAN AINTZAT HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK.

HAPOa izapidetzean garatzen den lurzoru urbanizaezinaren antolamenduak natura- eta nekazaritza-baliabideen erabilera jasangarria bermatu beharko du, eta haren osagai baliotsuenei edota ahulenei babes egokia eman beharko die. Antolaketa horretan udalerriko lurzoru urbanizaezin guztirako erabilerak eta jarduerak arautuko dira, eta, horretarako, Lurraldea Antolatze Gidalerroetan eta Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako antolaketa kategoriak esleituko dira.

Lurzoru urbanizaezina kategoriatan banatzeko, eremu bakoitzaren ezaugarriak, eremu horien harrera gaitasuna, eta hartzen dituzten natura baliabideen kalteberatasuna eta balioa hartuko dira oinarritzat. Antolamendu horretan, kontuan hartu beharko dira txosten honen aurreko 4. atalean aipatutako alderdiak eta zuzendaritza honek egindako kontsulta-izapidean erakundeek emandako erantzunen edukia.

Era berean, finkatu beharko dira lurzoru urbanizazinean onargarriak diren jarduerak eta instalazioak kokatzeko eta garatzeko baldintzak, bai HAPOaren araudian bertan bai horren inguruko ordenantza erregulatuak bereziak prestatuz eta onartuz. Besteak beste, honako alderdi hauek erregulatuko dituzte: hondakin-uren bilketa eta tratamendu egokia, obren eta eremu narriatuen paisaia-baldintzen lehengoratzeari, pistak egitea, egiturak paisaian integratzea, heskaiak zaintzea eta landa-eremuaren zein naturaren ingurumen-baldintzak hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren beste alderdi batzuk.

6. - HIRI-LURZORUA ETA LURZORU URBANIZAGARRIA ANTOLATZERAKOAN AINTZAT HARTU BEHARREKO INGURUMEN-ALDERDIAK.

Hiri-eremuak antolatzerakoan eta, halakorik izanez gero, sektore urbanizagarri berriak mugatu eta antolatzerakoan, honako gomendio hauei jarraituko zaie, txosten honen 3. atalean aipatutako helburu eta irizpideekin bat etorritik:

- A. HAPOan jasotako hirigintza-jarduketan egikaritzeak proportzionaltasun-irizpideei erantzun beharko die, eta proposatutako bizitegi-erabilerearako une bakoitzean benetan dauden beharretara egokituko da, lurzoruaren gehiegizko kontsumoa eta bigarren etxebizitzaren sustapena saihestuz. Horretarako, txosten honetako 7.4 atalean adierazitako proposamen posibleak aztertuko dira.
- B. Garapen berrien jasagarritasuna bermatuko da. Horretarako, hirigintza-araudiaren bidez edo HAPOaren hirigintza-fitxen antolamendu xehatuan irizpide eta baldintza hauek sartuko dira:
 - Eraikinak saneamendu-sistema publikoetan sartzera behartzea, tratamendu-irtenbide indibidualak eta jabari publiko hidraulikora isurtzeko puntu berriak saihestuz, Plan Hidrologikoaren Araudiko 52. 1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - Hiri-eremuak eta zona urbanizagarriak natura-arriskuen mende egon daitezkeen ekiditea.
 - Zaratarentzako kalitate akustikoaren helburuak betetzea, zeinak ezarri zituen 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoak.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Jasagarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezarritako helburuak, irizpideak eta zehaztapenak betetzea. Horrela, energia berriztagarrien instalazioak beste erabilera batzuekin bateragarriak izatea bultzatuko da –hala nola lur gaineko aparkalekuekin–, aprobetxamendu berriztagarriko instalazioak ezartzea erraztuko da banatutako sorkuntzari lotutako lurzoruan, eta beroa aprobetxatzeko sare kolektiboak txertatzea erraztuko da geotermia- edo biomasa-instalazioen bidez garapen berriko eremuetan eta hiri-eraberritze eta -berroneratze eremuetan. Era berean, lege horren 7.5 artikulua betez, aurreikusiko dira hiri-inguruneetan erabilera publikoko ibilgailu elektrikoak kargatzeko estazioak eta bizikleten erabilera eta aparkalekua errazteko espazioak instalatzea.
 - Eraikin eta azpiegitura berriak bisualki eta estetikoki integratzea, Gaintzako udal-mugartearen paisaia-kalitatea zaintzeko eta haren kultura-ondareari ez eragiteko.
- C. Garatu beharreko bizitegi-eremu bakoitzaren hirigintza-arau partikularrek zerrenda bat jasoko dute antolamendu xehatuan eta urbanizazio-proiektuetan nahitaez onartu beharko diren ingurumen-baldintzatzaileekin. Besteak beste, urbanizazio lanak egikaritzeko aplikatu beharreko neurri babesle eta zuzentzaileak jasoko dituzte, eta hala badagokio, urbanizazio gastutzat jo behar diren neurri konpentsagarriak.

7. - INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA.

Gaintzako Udalak egin behar duen ingurumen-azterketa estrategikoa (IAE) HAPOaren zati bat izango da, eta bertan identifikatu, deskribatu eta ebaluatuko dira plana aplikatzeak ingurumenean izan ditzakeen ondorio

adierazgarriak eta teknikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren arrazoizko alternatibak, haren aplikazioak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko edo minimizatzeke, eta ingurumenaren eta jasangarritasunaren gaineko ekintza positiboak planteatzeko.

Ingurumen-azterketa estrategikoak, gutxienez, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du. Era berean, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, ingurumenaren jasangarritasun-txostenei buruz II. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du.

Eranskin horietan definitutako atalak garatzean, txosten honetan adierazi diren alderdiak landu beharko dira, baita administrazioek, erakundeek eta publiko interesdunak problematikotzat jo dituzten ingurumen-gaiak eta jarraian aipatzen direnak ere:

7.1 Planaren eduki eta helburu nagusien laburpena, eta beste plan eta programa batzuekiko erlazioa.

Ingurumen-azterketa estrategikoan, HAPOaren edukia jasoko da laburtuta (edo haren aipamena egingo da), eta laburpen horretan adieraziko dira aurrekariak, helburuak eta aurreikusitako jarduerak eta zehaztapenak; baita aintzat hartu diren gainerako aukerak ere. Era berean, planean mugatutako esparruen planifikazio zehatua egiteko aurreikusitako diren jardueren eta garapen-tresnen denbora-planifikazioa ere azalduko da.

Bestetik, aztertu beharrekoak izango dira HAPO horrek hiri-antolaketako beste tresna batzuekin izan ditzakeen interakzioak, hala nola planarekin zerikusia izan lezaketen lurralde planekin eta arloko planekin izango dituen erlazioak. Kontuan hartu beharko dira, gutxienez:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak (LAG).
- Beasain-Zumarraga (Goierri) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Lurralde Plan Partziala.
- Gipuzkoako bizikleta bideen LPSa.
- EAEko nekazaritzari eta basozaintzari buruzko LPSa.
- EAEko ibaiak eta errekek (isurialde kantauriarra) antolatzeko LPSa, eta honen 1. aldaketa.
- Kantauriko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa 2022-2027.
- 197/2023 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoak, Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Espainiako zatiaren uholde-arriskua kudeatzeko plana berrikustea eta eguneratzea onartzen duena.
- Euskadiko Ingurumen Esparru Programa 2030.
- 2050 Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia eta Euskadiko Energia Estrategia 2030.
- Gipuzkoako eta Euskadiko klima-aldaketaren aurka borrokatzekeko estrategiak.

HAPOko helburuek eta jarduerak, esparru horretan eragiten duten planen eta programen helburu eta xedapenekin duten koherentzia eta erlazioa zehaztuko da. Horrek, xede komunak lortzea izango du helburu, eta halaber, HAPOaren barruan jarduteko dauden aukerak aztertzea, betiere gainerako programen helburuekin eta jarduketa-ildoekin ezkutatzek, ezadostasunak edo bateraezintasunak gerta litezkeen kasuetan. Era berean, eragin-eremuari aplikatu dakizkiokeen gainerako planekin izan daitezkeen albo-ondorioak, ondorio metagarriak eta sinergikoak identifikatuko dira. Era horretan identifikatutako ondorioak, halakorik izanez gero behintzat, planaren eraginak identifikatu eta ebaluatzeke atalean aztertuko dira.

7.2 Nazioartean, Batasunaren mailan, estatuan, erkidegoan, foru mailan edota udalean ingurumena babesteko ezarritako helburuak, eta plana egituratzerakoan helburu horiek aintzat nola hartu diren egiaztatzea.

Ingurumen-azterketa estrategikoak azaldu beharko du nola txertatu diren udal-antolamenduan irismen-dokumentu honen 3. atalean adierazitako ingurumena babesteko eta jasangarritasuneko irizpideak, edo HAPOaren formulazioan ezarri diren beste batzuk, ahal denean, ezarritako edo proposatutako adierazleak eta mugak erabilita.

7.3 Gaintzako udalerrriaren ingurumen-ezaugarriak eta bilakaera, klima-aldaketa kontuan hartuta.

Aurkeztutako hasierako dokumentu estrategikoan azaldutako informazioan oinarrituta, eta irismen-dokumentu honen 4. atalaren edukia kontuan hartuta, ingurumen-azterketa estrategikoak Gaintzako udalerrriaren ingurumen-ezaugarrien deskribapen bat jaso beharko du, eta haren egungo egoeraren diagnostiko oso bat egin beharko du. Hori horrela, beharrezko azterketa espezifiko guztiak egingo dira, kontsultatu diren informazio iturriak eta bibliografia adieraziz eta lekuan bertan egindako lanaren eta erabilitako metodologiaren berri emanez.

Diagnostikoan, natura-, nekazaritza-, ondare- eta paisaia-baliabideen egoera eta hiri- eta landa-eremuen ingurumen-kalitatea deskribatuko dira, eta bereziki babestu edo babestu behar diren elementuak eta/edo baliabideak identifikatuko dira.

Atal horretan, gainera, udalerriak bizi dituen ingurumen arloko presio eta arazo nagusiak aztertuko dira, arazo horiek HAPOan nola eragingo duten baloratzeko, edota planak arazo horiek larriagotuko dituen aztertzeko.

Deskribapena ez da ingurune fisikoaren ezaugarrietara mugatuko; aitzitik, planean ezarritako antolamenduaren ondorioz nabarmen alda daitezkeen hiri-metabolismoaren alderdiei edo aldagaiei buruzko informazioa eman beharko du: hala nola ur-hornidurako eta -saneamenduko sistemak, mugikortasun-sistema (garraio publikoa/pribatua, motorizatua/ez-motorizatua), zarata-mailak, energia-kontsumoa eta abar. Zehazki, eta indarrean dagoen legeria betez, honako azterketa hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- **Ur-baliabideen eskaria.** Uraren Legearen Testu Bateginaren 25. 4 artikuluan aipatzen den Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko txostena egin ahal izateko, HAPOaren zehaztapenak dakartzaten ur-baliabideen eskariaren azterketa bat erantsiko da, eta, hala badagokio, baliabide horiek babesten dituzten administrazio-emakidak edo ur-eskubideak adieraziko dira. Baliabide hidrikoen beharren zenbatespena egiteko, honako hauek hartu beharko dira kontuan: 35/2023 Errege Dekretuak onartutako Ekialdeko Kantauri Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren berrikuspenerako Ekialdeko Kantauri Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren Xedapen Arauemaileen I. eranskineko 14. eta 15. artikuluetan eta 6. gehigarrian ezarritakoa.
- **Saneamendu- eta arazketa-eskaria.** Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 245. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzak betetzen laguntzeko, Plan Orokorrak bere zehaztapenak dakartzaten saneamendu- eta arazketa-beharren analisia jaso beharko du.
- **Zarata.** EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 23. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, HAPOaren eremuaren zonakatze akustikoa egingo da, dekretu horren 20. artikuluan eta III. eranskinean definitutako eremu akustikoak kontuan hartuta, eta zonakatze hori erakusten duen plano bat erantsiko zaio hirigintza-dokumentazioari. Nolanahi ere, etorkizunean hirigintza-garapenak aurreikusten diren eta HAPOak xehetasunez antolatzen dituen eremuek inpaktu akustikoari buruzko azterlan bat izan beharko dute, urriaren 16aren 213/2012 Dekretuaren 37. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Azkenik, kontuan hartu behar da Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 50. artikuluan ezarritakoa, eta, ondorioz, kultura-ondasun babestuei eragin diezaiekeen hots-kutsadurarik dagoen aztertuko da, eta behar diren neurri zuzentzaileak eta babesleak hartuko dira.
- **Jasangarritasun energetikoa.** Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, HAPOak jasangarritasun

energetikoari buruzko azterlan bat jaso beharko du, lege horren 7.3 artikuluan ezarritako alderdiekin.

Udalerrriaren egungo ingurumen-egoera diagnostikatu ondoren, egoera horrek izan lezakeen bilakaeraren aurreikuspen bat egingo da, ingurumenean eragin dezaketen joera sozioekonomikoak – espero den klima-aldaketa, esaterako– kontuan hartuta. Azken faktore horri dagokionez, klima-aldaketak udalerrian eragin litzakeen inpaktuak identifikatzea komeni da; eta, era berean, aldaketa horretara egokitzeko batez ere zein esparrutan jardun beharko litzatekeen erabakitzea.

Gaintzaren ingurumen-ezaugarri orokorrak deskribatu ondoren, xehetasun handiagoz karakterizatuko dira HAPOak jarduketa esanguratsuenen edo inpaktu handienekoen kokaleku gisa hartu dituen eremuak edo kokalekuak, hala nola hiri-garapenak egitea aurreikusten den eremuak.

Azkenik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31. 1 artikuluan ezarritakoa betez, lurzoruak bertan jasotako aurreikuspenetarako hartzeko duen gaitasunaren azterketa aurkeztu behar da. Honako alderdi hauek hartuko ditu kontuan, besteak beste: administrazio hidrauliko eskudunak jabari publiko hidraulikoaren babesari buruz egiten duen informazioa; Gipuzkoako Ur Kontsultazioak hornidura- eta saneamendu-sareari buruz ematen duen informazioa, planteatutako garapen berriei zerbitzua emateko dauden azpiegiturak nahikoak direla bermatzen duena; eta errepedeen eta lehendik dauden beste azpiegitura batzuen arloan eskumena duten administrazioen txostena, planean jasotako aurreikuspenek izan dezaketen eraginari buruzkoa, besteak beste.

Atal horretan, agiriari azkenean erantsiko zaizkion gai guztiei buruzko kartografia –eskala egokian egina– hartuko da oinarritzat.

7.4 Alternatibak aukeratzeko prozesuaren laburpen arrazoitua. Soluzio hori aukeratzeko arrazoiak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak, gainera, HAPOaren helburuei erantzuteko teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak izan daitezkeen aukera guztien ingurumen arloko azterketa bat jaso behar du. Horretan, aztertutako aukera bakoitzak ingurumenean izan lezakeen eragina ebaluatuko da, eta planaren helburuei zenbateraino erantzungo zaien zehaztu, ingurumen arloko helburuei bereziki.

Hori horrela, azterketaren esparruan dauden ingurumen arloko elementu eta arazo nabarmenak identifikaturik, eta ingurumena babesteko helburuak ezarri ondoren, HAPOa garatu ahal izateko eta bertan ezarritako helburuak betetzeko teknikoki, ekonomikoki, eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren aukerak proposatu beharko dira. Eta horien artean, “0. aukera” sartu beharko da derrigorrez; hau da, udalerrriaren egiturazko antolamendua ez aldatzekoa. Ahal denean, hirigintzako jarduerak marrazteko edo diseinatzeko aukerak konparatu egingo dira, aukera horiek ezartzeko erabil daitezkeen kokalekuak bezalaxe.

Aurrerapen-dokumentuan jasotako planteamenduak kontuan hartuta (hasiera batean, ez da jarduera ekonomikoetarako lurzorurik sailkatuko), aukeren azterketak honako azterketa xehatu hauek jaso behar ditu:

- **Bizitegirako garapen berriak kokatzeko aukerak.** Lehenik eta behin, udalerrian HAPOaren indarraldirako behar diren etxebizitzaren kopurua zehaztu beharko da, eta egindako kuantifikazioa justifikatu beharko da gizarte-, demografia- eta ingurumen-parametroetan oinarrituta, betiere Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek kuantifikazio horri buruz ezartzen dituzten mugen barruan. Bizitegi-ahalmena zehaztu ondoren, azkenean sakonago aztertzea erabaki diren kokapenaren eta bizitegi-banaketaen aukerak aztertuko dira. Azterketa horretan, kontuan hartu beharko da etxebizitzaren kokapen- eta tipologia-aukera desberdinek ingurumenean duten eragina, halako moldez non baztertu egingo diren inpaktu kritikoak sortzen dituztenak ingurumen-elementu baliotsuetan, balio agrologiko handiko lurzoruetan edo nekazaritza-ustiatzei lotutako lurzoruetan, edo areagotzen dituztenak pertsonen edo ondasunen gaineko kalteen arriskuak, eta dentsitate ertain-altuko eta erabileren nahaste eta konplexutasun oneko hirigune trinko eta askotarikoak lehenestea, dentsitate baxu-oso baxuko bizitegi-garapen berriak saihestuz.

- **Espazio libreetarako eta ekipamenduetarako lurzoru-aukerak.** Azterketak espazio libreetarako eta ekipamenduetarako udalerrian dauden benetako lurzoru-premiak zehaztu behar ditu. Behar horiek ezarri ondoren, azkenean sakonago aztertzea erabaki den espazio libre eta ekipamenduetarako kokapen eta banaketa aukeren azterketa egingo da. Era berean, analisi hori jasangarritasun-irizpideen arabera egingo da beti, eta baztertu egingo dira ingurumen-elementu baliotsuetan eta balio agrologiko handiko lurzoruetan edo nekazaritza-ustiatzei lotutako lurzoruetan inpaktu kritikoak eragiten dituztenak edo pertsonen edo ondasunen gaineko kalteak areagotzen dituztenak.

Nolanahi ere, aukeren azterketan adierazi beharko da zein metodologia erabili den, eta zein neurritan kontuan hartu diren ingurumen alderdiak, alderdi tekniko eta funtzionalak, eta alderdi ekonomikoak, garatu behar den irizpide anitzeko azterketan. Azkenean aukeratutako aukera ez badator bat ingurumen-balioespen onena daukan aukerarekin, hori aukeratzeko arrazoiak behar bezala azaldu beharko dira.

Txosten horri proposatutako aukera guztien kokalekua eta ezaugarriak adierazten dituen dokumentazio kartografikoa erantsiko zaio.

7.5 HAPOko zehaztapen eta jarduketa ezberdinek ingurumenean dituzten eragin adierazgarrien identifikazioa eta balioespena.

Identifikatuko da eta balioetsiko da nola eragingo duten HAPOan aurreikusitako jarduerak ingurumeneko elementu desberdinetan, besteak beste honako hauetan:

- Batasunaren intereseko habitata.
- Balio estrategiko handiko nekazaritza-lurzoruak eta martxan dauden nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak.
- Jabari publiko hidraulikoa eta haren babes-eremuak.
- Paisaia.
- Hiri-ingurunearen kalitatea, zaratari edo trafikoari dagokienez.
- Giza osasuna.
- Ondare monumentala eta arkeologikoa.

Halaber, aztertu beharko da zein neurritan eragiten dien HAPOan aurreikusitakoak alderdi hauei:

- Mugikortasun eskaera.
- Ura eta energia bezalako baliabideen kontsumoa.
- Hondakin-urak isurtzea eta hondakinak sortzea.
- Uholde-arriskua.
- Klima-aldaketa arintzea eta horretara egokitzea.

Aztertutako inpaktuek zeharkako efektuak, metatze efektuak, efektu sinergikoak, epe laburreko, ertaineko eta luzeko efektuak, behin betiko eta aldi baterako efektuak, eta efektu positiboak eta negatiboak jaso beharko dituzte.

Identifikazioa eta balorazioa ez da mugatuko antolamenduaren xede den eremuaren eraldaketa fisikoak eragindako zuzeneko inpaktuetara; horrez gain, proposatutako antolamenduak eta erabileren eta jardueren erregulazioak eragindako zeharkako ingurumen inpaktua ere aurreikusi beharko dute.

Detektatutako inpaktuen garrantzia zehazteko, kontuan hartuko da 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, III. eranskinean, eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, III. eranskinean xedatutakoa.



2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, VI. Eranskineko 8. atalean zehaztutako terminologia erabiliz, identifikatutako inpaktu bakoitzaren magnitudea eta intentsitatearen ezaugarriak zehaztu eta balioetsiko dira. Horretarako, eragina behar bezala deskribatzeko eragin adierazleak (adierazgarriak, esanguratsuak, baztertzailleak, zenbakarriak eta identifikatzen errazak) eta eraginari dagokionez gutxieneko muga onargarriak finkatzeko ingurumen arloko kalitatezko helburu zenbait zehaztuko dira, erreferentzia modura hartuz indarreko legeria eta eskumeneko organoen jarraibideak, kasu bakoitzean.

Era berean, balorazio horretan erabakiko da, hala egokituz gero, HAPOaren barruan zeintzuk diren indarreko lurralde, hirigintza eta ingurumen arloko plangintzarekin bateraezinak diren jarduketak, edota ingurumenean ondorio kritikoak eta onartezinak sortuko dituztenak. Kasu batean zein bestean, jarduketa horiek aldatu edota baztertu egin beharko dira.

Azkenik, arrazoituko da zer alderditarako atzeratzen den eraginen ebaluazioa prozesuaren ondorengo faseetara, egokiagoztat jotzen delako.

7.6 Ingurumen integrazioko neurriak.

Ingurumen txosten estrategikoak zehaztuko ditu HAPOan aurreikusitako jardueren ondorioz ingurumenarentzat adierazgarritzat jotako inpaktu bakoitza prebenitu, murriztu eta, ahal den heinean, indargabetzeko neurriak.

Halaber, HAPOan ingurumen-alderdiak sartzek ez luke mugatu behar gerta litekeen inpaktu bati erantzuteko neurriak ezartzera; izan ere, neurri horiek osatuz, ezarri beharko liriateke udalerriko ingurumen-arazoak konpontzen lagunduko duten eta ingurumen kalitate hobea lortzen lagunduko duten neurriak.

Horrela, Gaintzako HAPOaren ingurumen-integrazioa egiteko, neurri mota hauek hartu behar dira:

- Lurralde-plangintzan eta hiri-diseinuan ingurumen-alderdiak kontuan hartzea eta txertatzea, aurretik zeuden arazoak edo inpaktuak prebenitzeko edo zuzentzeko. Ez du aurrekontu espezifikorik behar izaten. Horien artean, honako hauek aipa daitezke adibide gisa: balio naturalen babes egokia bermatuko duen lurzoru urbanizaezinaren antolamendua definitzea, eragina izan dezaketen jarduerak arautzeko ordenantzak txertatzea, garapen berriak sentikortasun txikiko eremuetan kokatzea hautatzea, eraikinak orientatzea haien portaera energetikoa hobetzeko eta eguzki-argia hobeto aprobetxatzeko, etab.
- HAPOaren zehaztapenak garatzen dituzten planen eta proiektuen ingurumen-inpaktu negatiboak prebenitzeko eta zuzentzeko neurriak, klima-aldaketan duten eragina arintzeko eta hartara egokitzeko neurriak barne. Neurri horiek egikaritze-proiektuen zati bezala hartuko dira, eta, ondorioz, proiektuen aurrekontuetan jaso beharko dira. Horietako asko zehaztu egin beharko dira planarekin edo garapen proiektuarekin batera. Baina, edozein kasutan ere, HAPOak neurri horiek identifikatu egin beharko ditu, horien gutxieneko karakterizazio bat egin, eta garapen planetan eta proiektuetan nahitaez jaso beharrekoak diren zehaztu.
- Gertatzen diren kapital naturalaren galerak konpentsatzeko neurriak, saihestezintzat jo ondoren. Planteamendu-tresnan honako hauek zehaztu behar dira:
 - Non konpentsatzen den lehentasunak definitzen dituen azterlan batetik abiatuta, lehengoratzeko komeni den eremu degradatuetan, tokiko korridoreen sarean eta egon daitezkeen aukeretan oinarrituta.
 - Konpentsazio-jarduketak hartuko dituzten lursailak lortzeko, sailkatu den lurzoruari lotu behar zaio; esate baterako, atxikitako sistema orokor baten bidez edo zuzkidura publikoak lortzeko jarduketa baten bidez.
 - Konpentsazio-neurrien kostuak sektore berriaren urbanizazio-gastu bat izan behar du.

- Konpentsazio-neurriak egikarrituta egon beharko dira eraikuntza-lizentziak eman aurretik.
- Udalerriko ingurumen-baldintzak hobetzeko jarduketak, ekologia edo paisaia hobetzera edota eremu nahiz esparru jakin batzuetako ingurumen-kalitatea hobetzera bideratuak. Horretarako, lehentasun-hurrenkera bat zehaztu beharko lirake HAPOan, leheneratu beharreko kokalekuak edota ingurumen-baldintzak hobetzeko jarduerak identifikatuz, eta jarduera horiek gauzatzeko programa bat ezarrita.

Ingurumen-integrazioko neurriak HAPOaren hirigintza-dokumentazioan jaso beharko dira, eta haien kostu ekonomikoa eta finantzaketa-moduak zenbatetsi beharko dira (udal-aurrekontuen kargura, dirulaguntzen bidez, beste erakunde batzuen hitzarmenen bidez, urbanizazio-gastuen kargura, eta abar), eta horiek egikaritzeko denbora-plangintza bat ezarri. Azkenik, garapen-plan eta -proiektuetan kontuan hartu beharreko neurriak zehaztuko dira.

7.7 Ingurumena zaintzeko programa, planaren eraginei dagokienez.

Ingurumen-azterketa estrategikoan jaso beharko da HAPOak ingurumenean izan ditzakeen eraginak zaintzeko programa bat, identifikatutako inpaktu garrantzitsu bakoitzaren jarraipena egin ahal izateko, neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak betetzeko eta horiek eraginkorrak izateko, baita HAPOan zehaztutako ingurumen-helburuak lortzeko ere.

Horretarako, programak honako hauei buruzko informazioa jaso beharko du aldian-aldian:

- Proposatutako ingurumen-helburuen betetze-maila.
- Plana martxan jartzetik eratorritako ingurumen-ondorio kaltegarrien garrantzia.
- Neurri prebentibo, zuzentzaile eta –hala dagokionean– konpentsatzaileen ezarpena eta horien eraginkortasuna, eta neurri horiek planaren eta egikaritze-proiektuen segidako garapen-dokumentuetan sartzea.
- Inguruneke elementuetan agertu diren eta aurreikusi ez diren ingurumen-ondorio kaltegarriak identifikatzea.
- Kasuan kasuko sektorean (ura, hondakinak, zarata, kutsatuak egon daitezkeen lurzorua, errepideak, jarduera sailkatuak, eta beste) eskumena duten erakunde edota administrazioek beharrezko baimenetan ezarritako ingurumen-baldintzak betetzea, baita udal mailako baimenetan ezarritakoak ere.

Xede horri begira, ikuskapen-programak honako datu hauek jaso beharko ditu:

- Jarraipena egin beharko zaien ingurumen-sistemak, -alderdiak edo -aldaerak identifikatzea.
- Burutu beharreko jarraipen- eta kontrol-jarduerak, bakoitzaren metodologia (datuak hartzeko estrategiak, aldizkakotasuna...) eta kronograma adierazita.
- Jarraipen horretan erabiliko diren adierazleak, bakoitzaren unitateak eta gehieneko edo erreferentziako mailak adierazita. Adierazle modura erabili ahal izango dira agiri honetako 8. atalean iradokitakoak, edo egokituz jo daitezkeen beste batzuk.
- Ingurumen-jarraipena egiteaz arduratuko diren pertsonak edota erakundeak.
- Egin beharreko txostenen edukia eta aldizkakotasuna.
- Aurreikusi den aurrekontua.

7.8 Laburpen ez-teknikoa.

Ingurumen-azterketa estrategikoan helarazitako informazioaren laburpen ez-tekniko bat idatzi beharko da, informazio zehatza eta publiko orokorrak ulertzeko modukoa emanez.



Laburpen horretan, honako hauek jasoko dira gutxienez: HAPOa egitearekin lortu nahi diren helburu orokorrak; aztertu diren aukerak; horietako bakoitzak ingurumenean eragingo dituen ondorioen laburpena, eta azkenean erabakitako irtenbidea edo irtenbideak aukeratzeko arrazoiak.

Laburpen horren osagarri gisa, diseinatutako neurri zuzentzaileak deskribatuko dira, eta herritarren zein administrazioen parte-hartzeko prozesuko ondorioak adierazi.

Era berean, alderdi aipagarrienen dokumentazio grafikoa erantsiko zaio.

7.9 Aukeren eta neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileen bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena.

Aukeren azterketari erantsiko zaio gutxi gorabeherako azterlan ekonomiko bat, kostu-onura analisia eta analisi ekonomiko-finantzarioa aintzat hartuta, eta, ahal den neurrian, ingurumen eta gizarte alorreko kanpoko gastuen azterketa ere sartuta.

Era berean, atal honetan sartuko da HAPOaren aplikazioak sor ditzakeen ondorio negatiboak prebenitzeko, murrizteko edo arintzeko neurrien kostuaren zenbatespen edo aurrekontu banakatuak, haren ondoriozko ingurumen-kostuen internalizazioa bermatzeko, bai eta neurri horien finantzaketa-iturriak ere, Gaintzako udal-aurrekontuen kargura hartuko direnak eta, hala badagokio, hirigintza-proiektuen edo -jarduketan sustatzaileek beren gain hartu behar dituztenak bereizita.

8.- INGURUMENA LANTZEKO ETA IKUSKAPEN PROGRAMARAKO KONTUAN HARTU BEHARREKO ADIERAZLE KUANTITATIBO EDOTA KUALITATIBOEN PROPOSAMENA.

Aukeren ingurumen-ebaluazioa egiteko eta ikuskapen-programarako hautatutako adierazleak adierazle konbinaketa bat izango dira, eta aukera emango dute egiaztatzeko betetzen direla, alde batetik, HAPOak bere gain hartzen dituen ingurumen-helburuak, eta, bestetik, plana garatzen den bitartean aurreikusitako ingurumen erasanez. Era horretan, ingurumen-helburuak betetzen ez badira edo horietan aldaketak sortzen badira, neurri zuzentzaile osagarriak txertatu ahal izango dira.

Ingurumen-adierazleak:

- Zehaztutako ingurumen-helburuekin eta -irizpideekin lotuak egon behar dute, HAPOa egiten eta ezartzen esku hartzen duten eragileei erantzukizunak finkatzen lagunduko dien benetako kudeaketa-tresna moduan funtziona dezaten.
- Neurgarriak izan behar dira, eta denbora-serie jakinetan aztertze modukoak. Denboran zeharreko aldagarritasuna adierazteko modukoak izan behar dira, haiek aztertzea zilegi izan dadin, joera negatiboak prebenitu edo zuzentzeko.
- Gutxi izan behar dira kopuruan, eragindako eragile guztiek erraz ulertzeko xedez. Horretarako, sinpleak eta interpretatzen errazak izan behar dira.
- Eskuragarri egon behar dute, adierazle horiek lortzeko informazio-iturri askotara jo beharrik gabe.

Gaintzako udalerraren ezaugarriak eta aurrerapenean eta hasierako dokumentu estrategikoan jasotako planteamenduak kontuan hartuta, adierazle erabilgarri batzuk izan daitezke: lurzoruen kontsumoa (azalera osoaren gainean artifizializatutako azalaren ehunekoa), udal-mugarrean balio estrategiko handia duten lurzoruen ehunekoa, interes komunitarioko habitatek eta intereseko landarediak okupatutako azalaren ehunekoa eta abar baloratzen bideratutakoak.

9. - INFORMAZIO ETA KONTSULTARAKO MODALITATEAK

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. eta 22. artikuluetan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoa betez, informazio- eta kontsulta-modalitateei dagokienez, Gaintzako Udalak, HAPOaren prozedura substantiboan aurreikusitako izapideen barruan, honako jarduketa hauek egingo ditu:



- a) Ukitutako herri administrazioei eta herritar interesdunei kontsulta egingo die, planaren edo programaren aldeko bertsioari eta ingurumen-azterketa estrategikoari buruz.
- b) Planaren edo programaren aldeko bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa jendaurrean jarriko ditu ikusgai, iragarkia aldizkari ofizialean argitaratuta, eta, gutxienez, 45 eguneko epea emango du interesdunek aztertu eta bidezko oharra egin ditzaten.

Aurrekoaren ondorioetarako, eraginpeko administrazio publikotzat eta publiko interesduntzat hartuko dira irismen-dokumentu hau idazteko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak kontsultatutako administrazioak, erakundeak eta pertsonak (dokumentu honen 2. atala) eta Udalak plana izapidetzeko prozesuan identifika ditzakeen erakunde eta interesdun gehigarriak (eragindako lurren jabeak, auzo-elkarteak, etab.).

10. - INGURUMEN-ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN ESKAERA ETA JENDAURREKO EPEALDIAREN OSTEAN PLANEAN IZAN DAITEZKEEN ALDAKETAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24. eta 25. artikuluetan eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, plana edo programa behin betiko onartu aurretik, Gaintzako Udalak ingurumen-adierazpen estrategikoa egiteko eskatuko dio Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiarri. Eskaera horrekin batera, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa aurkeztu beharko da, honako hauek osatua:

- HAPOaren hirigintza-dokumentuak.
- Ingurumen-azterlan estrategikoak.
- Dagokion alorreko araudiaren arabera derrigorrezkoak diren txostenen kopiek eta kontsulta zein jendaurreko informazio-izapideetan aurkeztu diren alegazioen kopiak.
- Laburpen-dokumentu bat, honako hauek deskribatuko dituenak: HAPOaren azken proposamenean nola txertatu diren ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta irismen-dokumentura nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren kontuan.

Bestetik, baldin eta plana edo programa izapidetzen den bitartean eta kontsultak egiteko eta jendaurreko informazioa emateko izapideak bete ondoren, ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen eta ebaluatu ez diren aldaketak egitea erabakitzen bada, eta, edozein kasutan ere, 211/2012 Dekretuak 4. artikuluan aipatutako kasuren bat gertatzen bada, udalak berorren berri eman beharko dio zuzendaritza honi, eta planean edo programan aldatu diren alderdiak ebaluatzeko beharrezkoa gerta litekeen dokumentazioa bidaliko dio.



Donostia, 2024ko irailaren 12a

Ingurumen Administrazioaren Zuzendari Nagusia

Sin: Miriam Oca Pascual